



## LUMAfest! mikrokontakizunen lehiaketa 2025

### LEHIAKETAREN OINARRIAK

#### HELBURUA

LUMAfest!ek Gipuzkoako gazteek (14 eta 21 urte bitartekoek) literatura jardueretan parte har dezaten sustatu nahi du, horrela, literaturarekiko eta sormenezko idazketarekiko interesa bultzatzeko.

#### PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketan parte hartu ahal izango du Espainiako estatuan erroldatuta dagoen eta 2025eko urtarrilaren 29an 14 eta 21 urte bitarte dituen edozein pertsonak. Ezingo da lehiaketara aurkeztu antolatzaileen seniderik.

#### EPEA

Lehiaketan parte hartzeko epea 2025eko urtarrilaren 28an hasiko da eta martxoaren 19an amaituko da 23:59an.

#### PARTAIDETZA

Lehiaketara aurkezten diren mikrokontakizunetan "**desira(tu)**" (izena nahiz aditza erabili ahal da) hitza agertu beharko da ("deseo" gaztelaniaz), eta, gehienez, 240 karaktere izan beharko ditu (tarteak barne), eta argitaragabeak izango dira. Mikrokontakizunak hizkuntza ofizialetako edozeinetan egon daitezke idatzita: euskaraz edo gaztelaniaz.

Mikrokontakizunak bi modutan aurkez daitezke:

- Instagrameko argitalpen baten bidez, #lumafestibalamikros traola eta @lumafestibala aipatuz.
- Twitterreko argitalpen baten bidez, #lumafestibalamikros traola eta @lumafestibala aipatuz. Traola sartuta eta @lumafestibala aipatuta 240 karaktere baino gehiago badira, erantzun zuzen bat gehitu ahal izango zaio tuitari, testuaren jarraipen gisa.
- Posta elektronikoaren bidez: [info@lumafestibala.com](mailto:info@lumafestibala.com)

Kontuan izan behar da parte-hartzaileek beren Instagrameko eta/edo Xeko profilak irekita izan beharko dituztela beren partaidetza bidaltzeko unean, lehiaketaren antolatzaileek mikrokontakizunari sarbidea izan dezaten eta hura kontuan har dezaten.

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

Lehiaketan parte hartzen duten mikrokontakizunak LUMAfest! sustatzeko erabili ahal izango dira, eta eskubideak erabilera horretarako bakarrik lagako direla ulertuko da.

Parte hartzen dutenek nahi adina mikrokontakizun aurkeztu ahal izango dituzte, baina sari bakarra lortu ahal izango dute.

Ez dira partaidetzatzat hartuko eduki iraingarriak edo mingarriak dituzten testuak.

## **HAUTAKETA**

LUMAfest! jaialdiko antolakuntzak bi kategorietako testu finalistak aukeratuko ditu aurkeztutako guztien artean. Ondoren, gonbidatutako idazleekin lankidetzan, testu irabazleak aukeratuko ditu.

Irabazleak LUMAfest! jaialdian zehar iragarriko dira, eta pertsona horiek mezu pribatu bat jasoko dute testu irabazlea argitaratu zuten sarean.

Irabazleei oinarriak betetzen dituztela ziurtatzeko agiriak eskatuko zaizkie.

## **SARIAK**

Berrikuntza gisa, eta parte hartzaileen arteko aukera-berdintasuna bermatzearren, aurten bi adin-tarte ezarri dira: lehena, 14 eta 17 urte artekoa, eta bigarrena, 18 eta 21 urte artekoa. Mikrokontakizuna argitaratzeko unean, parte-hartzaileek zein adin tartetakoak diren adierazi beharko dute, jaialdiaren antolatzaileei mezu pribatu bat bidaliz Instagram (@lumafestibala) edo X (@lumafestibala) bidez, aukeratu duten parte-hartze kanalaren arabera.

Hizkuntza bakoitzean sari bakarra ezarriko da adin-tarte bakoitzeko, eta lau (4) sari emango dira guztira:

- bi (2) sari euskaraz idatzitako mikrokontakizunen artean banatzeko; sari bat (1) 14 eta 17 urte bitarteko egileek idatzitako mikrokontakizunei emango zaie, eta beste sari bat (1) 18 eta 21 urte bitarteko egileei.
- bi (2) sari gaztelaniaz idatzitako mikrokontakizunen artean banatzeko; sari bat (1) 14 eta 17 urte bitarteko egileek idatzitako mikrokontakizunei emango zaie, eta beste sari bat (1) 18 eta 21 urte bitarteko egileei.

Jaialdiaren antolatzaileek konpromisoa hartzen dute saririk eman gabe ez uzteko eta aurreko lerroetan adierazitako banaketa mantentzeko. Soilik hizkuntza jakin bati lotutako adin-tarteren batean partaidetzarik ez balego partaidetza aski dagoen adin-tarteko egileen artean bi sariak esleituko lirateke, nahiz eta horrek adin-tarte bereko bi egile saritzea ekarriko lukeen.

Lau sariak liburuetan erabiltzeko 180 euroko bonu bana izango dira, eta antolatzaileek adierazitako Gipuzkoako liburu-dendetan erabili ahal izango dira, fisikoki edo *online*.

## **ZABALKUNDEA**

Hautatutako testuak, finalistak eta irabazleak, LUMAfest! jaialdiko sare sozialetan zabalduko dira. Horrez gain, LUMAfest! sustatzeko ere erabili ahal izango dira.

## **DATU PERTSONALEN BABESA**

- Parte-hartzaileen eta irabazleen datuak babestea:  
Lehiaketaren gardentasuna bermatzeko, irabazleak sare sozialean duen ezizena argitaratuko du LUMAfest!ek lehiaketa burutzen den hedabidean (LUMAfest!en Instagrameko eta Xeko kontuak) edo beharrezkotzat jotzen dituen kanaletan.
- Parte-hartzaileen eskubideak:  
Parte-hartzaileek datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko, mugatzeko, transferitzeko eta baliogabetzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte LUMAfest! ekimenaren aurrean, [info@lumafestibala.com](mailto:info@lumafestibala.com) helbide elektronikora idatzizko jakinarazpena bidaliz.



## Concurso de microrrelatos LUMAFest! 2025

### BASES DEL CONCURSO

#### OBJETIVO

LUMAFest! quiere promover la participación de la juventud guipuzcoana (entre 14 y 21 años) en actividades literarias, suscitando su interés por la literatura y la escritura creativa.

#### PARTICIPANTES

Podrá participar en el concurso cualquier persona, de entre 14 y 21 años (a fecha de 29 de enero de 2025), que esté empadronada en el territorio del Estado español. No podrá presentarse al concurso ningún familiar de la organización.

#### PLAZO

El plazo para participar en el concurso comenzará el 28 de enero y finalizará el 19 de marzo de 2025 a las 23:59.

#### PARTICIPACIÓN

Los microrrelatos que se presenten al concurso deberán incluir la palabra “**deseo**” (en euskera, “**desira(tu)**”, pudiendo emplearse ya sea como verbo o como sustantivo), tener un máximo de 240 caracteres (espacios incluidos) y ser inéditos. Los microrrelatos podrán estar escritos en cualquiera de los idiomas oficiales: euskera o castellano.

Los microrrelatos podrán ser presentados de dos maneras:

- A través de una publicación en Instagram con el hashtag #lumafestibalamikros y mencionando a @lumafestibala
- A través de una publicación en X con el hashtag #lumafestibalamikros y mencionando a @lumafestibala. En el supuesto de que la inclusión del hashtag y la mención a @lumafestibala superen los 240 caracteres, podrá añadirse una respuesta directa al tuit, como continuación del texto.
- A través del correo electrónico: info@lumafestibala.com

Debe tenerse en cuenta que las personas participantes tendrán que tener abiertos sus perfiles de Instagram y/o X en el momento de enviar su participación para que la organización del concurso pueda acceder al microrrelato y tenerlo en consideración.

La participación en el concurso supone la aceptación de estas bases.

Los microrrelatos que participen en el concurso podrán ser utilizados para uso promocional de LUMAfest!, entendiéndose la cesión de derechos solo para ese uso.

Quienes participen podrán presentar cuantos microrrelatos deseen, aunque solo podrán obtener un premio.

No serán considerados como participantes cualesquiera textos que contengan contenidos ofensivos o insultantes.

## **SELECCIÓN**

La organización de LUMAfest! seleccionará los textos finalistas entre todos los presentados, en ambas categorías. Además, en colaboración con las autoras invitadas, escogerá los textos ganadores.

Quienes resulten ganadores, serán anunciados durante el festival LUMAfest!, y también recibirán un mensaje privado en la red en la que publicaron el texto ganador.

A quienes resulten ganadores se les solicitará documentación que certifique el cumplimiento de las bases.

## **PREMIOS**

Como novedad, y con ánimo de garantizar en lo posible la igualdad de condiciones entre las personas participantes de cara a una participación más justa, este año se han establecido dos franjas de edad: la primera, de 14 a 17 años, y la segunda, de 18 a 21 años. En el momento de publicar el microrrelato, las personas participantes tendrán que indicar la franja de edad a la que pertenecen enviando un mensaje privado a la organización del festival vía Instagram (@lumafestibala) o X (@lumafestibala), dependiendo del canal de participación por el que hayan optado.

Se establecerá un único premio por rango de edad en cada idioma, de manera que se otorgarán un total de cuatro (4) premios:

- dos (2) premios a distribuir entre los microrrelatos escritos en euskera, a razón de un (1) premio a adjudicar a los microrrelatos escritos por autoras de 14 a 17 años, y otro premio (1) a los de las autoras de 18 a 21 años;
- dos (2) premios a distribuir entre microrrelatos escritos en castellano, a razón de un (1) premio a adjudicar a los microrrelatos escritos por autoras de 14 a 17 años, y otro premio (1) a los de las autoras de 18 a 21 años.

La organización del festival se compromete a no dejar desierto ningún premio y a mantener la distribución de los mismos alegada en las líneas precedentes. Solo en caso de que la participación en algún rango de edad e idioma fuera nula se procedería a otorgar los dos premios reservados para el idioma en cuestión al rango de edad en el que hubiera un

número de participación suficiente para adjudicar los dos premios, aunque ello implicase premiar a dos autoras de la misma franja etaria.

Los cuatro premios consistirán en sendos bonos de 180 euros para gastar en libros que se podrán canjear en librerías de Gipuzkoa indicadas por la organización, ya sea físicamente u *online*.

## **DIFUSIÓN**

Los textos seleccionados, finalistas y ganadores, se difundirán en las redes sociales de LUMAfest! También podrán ser utilizados exclusivamente para un uso promocional de LUMAfest!

## **PROTECCIÓN DE LOS DATOS PERSONALES**

- Protección de los datos de participantes y de ganadores:  
Para garantizar la transparencia del concurso, el *nickname* que la persona ganadora tiene en la red social será publicado por LUMAfest! en el medio en el que se celebra el concurso (cuentas de Instagram y de X de LUMAfest!) o en los canales que considere necesarios.
- Derechos de los participantes:  
Las personas participantes podrán ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación, oposición, limitación, portabilidad y revocación de la autorización ante la iniciativa LUMAfest!, mediante comunicación escrita al email [info@lumafestibala.com](mailto:info@lumafestibala.com).